

BIDANKOZARTE

Lege-gordailu: NA 2365-2015

Bidankoze hiriko aldizkari historiko-kulturala

Edukiak

- Diseinu berria 1
- Bidankoze, Izaba eta ardoa 1
- Bidankozeko populazioa historian zehar 2
- Bidankoze 1366ko Su Liburuan..... 2
- *Pantxo* etxea..... 3
- Bidankozeko abizenak 4
- Tebistako 50 urte 4

Kontaktu:

bidankozarte@yahoo.es

Eduki gehiago:

www.vidangoz.com/bidankozarte/



Horrela errodatuko ziren ardo kupelak *Ekuador* karrikatik duela hamarkada batzuk.

Bidankoze, Izaba eta ardoa

Izabarrak *berezi samarrak* direla ez dirudi gauza berria denik, ezta Bidankoztarrekin bere gorabeherak izan zitzaketela ere. Eta horien artean ardoa sartuz gero, egoerak ñabardura dramatikoak har ditzake.

Beno ba hara non, duela lau mende egoera horretan genbiltzan. 1591. urtea izanen zen eta Izabako taberna (udal zerbitzua izanki haren kudeaketa urtero enkantean jartzen zuten) Pascual Mainz bidankoztarrak alokairuan hartua zuen. Taberna ez zen aisialdirako bideratutako txokoa soilik, herria ardoaz hornitzeko ardura ere bazuen, eta edari hori garai hartan (orain dela gutxira arte bezala) premia-premiazko elikagaia zen.

Ez dakigu gure herriko Pascuali zer gertatu zitzaien, baina antza denboraldi batez Izaba ardorik gabe utzi omen zuen eta *hori ez da jolasetarako gauza*. Hori dela eta, Izabako hiribilduak Pascualek zegokion isuna ordaindu bitartean, zilarrezko katilu bat hartu zion berme gisa isuna ordaindu arte. Antza denez, Pascualek bere hitza bete zuen baina Izabak ez zion katilua itzultzen... eta epaitegietan bukatu zuten.

Jakina da gizona dela harri berarekin eztopezu egiten duen animalia bakarra

eta gizonezkoa Bidankozekoa bazen ere, ez zen salbuespena izan... Izan ere, justu ehun urte beranduago argizagiak berriz ere lerrokatu egin ziren eta Pedro de Iriarte Corostiel bidankoztarrak (bigarren abizen honek *Kostiol* etxearen izenarekin zerikusia izan lezake) eta Miguel de Baines y Lorbes izabarrak (errege-eskribaua zena, hau da, notarioa) talka egin zuten eta tartean ere ardoa zegoen.

Orduko hartan mando bat eta ardo zama baten ezbahituraren inguruko auzia egon zen. Prozesu hori bukatu behar zuen bezala amaitu zen, baina prozesu-kostuak ordaintzeko garaian bidankoztarraren ondasunen gauzatzearen inguruko nahasteren bat egon zen eta honek eskribaua auzitara eraman zuen.

Bi afera hauek nola bukatu ziren jakiteko aukerarik ez dut izan, baina norbaitek jakin-mina badu, Nafarroako Artxibategi Orokorreko 056817 eta 271063 prozesu zenbakiak dira hurrenez hurren.

Hau guztia kontuan izanik, Izabara joaten zareten hurrengo aldian, badaezpada, ez ezazue ardoa eskatu.


Diseinu berria

Begietara goxoena iruditzen zaiguna errazago jaten dela adierazteko *begiekin jaten dugula* esaten den era berean, irakurtzen duguna ere begietatik sartzen zaigula (literalki) esan genezake, eta aldizkari hau ez da salbuespena.

Horrela, eta Bidankozarteko aldizkariaren aurreko diseinua agian testu karga handiegi erakusten zuela jakitun izanda, argitalpen honek hemendik aurrean izango duen itxura berria aurkezten da, (begietara) erakargarriago egiteko helburu.

Bestalde, eta diseinuaren aldaketaz baliatuz, hainbat atal eta eduki ere aldatuko dira, aurreko egitura baino zabalago eta dinamikoago lortzen saiatzeko.

Ea gustatzen zaizuen.



Bidankoze 1366ko Su Liburuan

1366ko su liburuak gure herrian bizi ziren 30 auzokide (jabeak) zerrendatzen ditu. Kopuru urria iruditu arren, 16 urte lehenagoko agiriko kopurua bikoizten du.

Zer gertatu zen populazioa bikoizteko? Beno, egiari zor, galderak tranpa dauka. Herriak ez zuten izugarriko hazkunderik izan benetan. Lehenengo su liburuak 1350. urtean burutu ziren, izurri beltzaren lehenengo agerraldia (1348) baino bi urte beranduago besterik ez, eta hondamendi horrek, iturri batzuen arabera, Nafarroako populazioaren % 60 inguru eraman zuen. Ez dakigu ezbehar horren aurretik zenbat jende bizi zen Bidankozen, ezta zenbat hil ziren edo seguruagoa omen zen beste lekuren batera zenbatek egin zuen alde ere. Dakiguna da kolpe honetatik azkar samar indarberritu zirela.

Dagoeneko 30 familia-buru haien artean, haietako guztiak nekazariak izanda eta kapareriak ez egonda (taldekaparetasuna 1412an eman zieten Erronkariko biztanleei), hainbat abizen ezagun aurki ditzakegu: Kanbra, Hualde, Mantxo, Inegiz (Bidankozen Inigizena etxea bazegoen), Landa...

Hurrengo mende eta erdian herriak hazten jarraitu omen zuen, ordutik egonkortzeko eta tamaina berean eusteko etorriko ziren hurrengo bost mendeetan zehar, hau da, 70 etxe inguruan.

Bidankozeko populazioa historian zehar

Historiak joanetorriak baditu eta askotan herri baten izaera aldatzen duten baldintzak suertatzen dira. Zenbaki honetan Bidankozeko populazioak izan duen bilakaeran arreta jarriko dugu, gai honen inguruan dokumentu historiko batzuen urteurren borobilak aurten betetzen baitira: 1366ko suen liburuak (duela 650 urte idatzitakoak), 1816ko eliza-matrikula bat eta 1916ko katastroa.

Historian zehar egindako zerrenda hauek zergak biltzeko xedearekin burutu ziren. Herri baten biztanle kopurua jakin nahi zuten, herri horrek zenbat diru eman behar zuen jakiteko helburuarekin. Eliza-matrikularen kasuan, 'Bidankozen bizi ziren arimen' kopurua jakiteko egin omen zen. Kontuan hartu behar dugu, hala ere, garai hartan Elizak bai hamarrenak baita primiziak ere jasotzen zituela.

Aipatutako lehenengo idazkia, 1366an egindakoa, historikoki iraun duen Bidankozeko etxejabeen izen bigarren zerrenda da. Bidankozen, lehena 16 urte lehenago burutu zen. Garai hartan Bidankozek 30 su zituen (etxea edo familiaren sinonimo gisa ulertu behar da). Batzuetan bost pertsona bizi baziren etxe bakoitzean, herriak 150 biztanle zituela zenbatetsi

dezakegu. Agian jende gutxi irudituko zaigu, baina Erronkarin hirugarren herria zen orduko hartan, Izaba eta Burgiren atzetik, eta Uztarrotzeko biztanleria berarekin.

1816an, lau mende eta erdi beranduago, egoera zeharo ezberdina zen, orduan 67 etxe baitzituen, historikoki populazio gehienaren inguruan: 400 biztanle.

1366an Bidankozeko Erronkaribarren herria zen tamainan bat lehenagoko egoera mantentzen zen: 69 etxe eta 439 biztanle. Agirik diotenez, azkeneko bi hamarkadak kontuan hartu gabe, azkeneko 500 urteetan Bidankozeko etxe kopurua oso gutxi aldatu dela esan daiteke, 73 etxe inguru. Herriaren populazioak, ordea, gorabeherak izan ditu denboran zehar, noizbehinka izurriteak eta gerrateak jota, herriak mantendu ahal zuen populazio kopurua *era natural batean* orekatzen omen zen.

Idazki hauek, gainera, gure abizenetako batzuk Bidankozen oinordetzen hasi aurretik eta guzti iraun dutela erakusten digute (XV. mendearen erdialdean), kasu batzuetan abizen gisa, bestetan etxe-izen moduan: Maxterra, Esparz, Ezker, Elizalte, Landa, Periz, Algarra, Sanz, Gaiarre, Ibaines, Erlanz, Ganbra...

Idazki hauek, gainera, gure abizenetako batzuk Bidankozen oinordetzen hasi aurretik eta guzti iraun dutela erakusten digute (XV. mendearen erdialdean), kasu batzuetan abizen gisa, bestetan etxe-izen moduan: Maxterra, Esparz, Ezker, Elizalte, Landa, Periz, Algarra, Sanz, Gaiarre, Ibaines, Erlanz, Ganbra...

1816ko Bidankozeko parrokia-matrikula

Casas.	Personas de Común.	Deo confes.	de Ambul.	Total de Personas
1. Josef Joaquín Loxer	6		3	9
2. Ignacio Triparay	4			4
3. Gregoria Barrera	5			5
4. Pedro Antonio Sarate	3		3	6
5. Josef Orduna	4	1	1	6
6. Babil Sanz	6			6
7. Ana Cipracia Sanz	6	3	1	10
8. Ana Cipracia Carrica	2			2
9. Fermín Navarro	6			6
10. Domingo Vidast	3		2	5
11. Matias Urrainqui	5		1	6
12. Juan Josef Arpueda	4		2	6
	1		1	2


Iribarnea auzoko *Pantxo* etxeari buruz arituko gara, auzo horretan lantzen dugun bosgarrena. Hurrengo lerroetan azalduko den moduan, hainbat bitxikeri dituen etxea.

Baina hasieratik abia gaitezen: nondik sortu zen etxearen izena? Bada, oraingo honetan erantzuna beste batzuetan baino errazagoa ematen du, izan ere, *Pantxo*, Frantzisko izena duen pertsonaren izengoitia izan ohi da. Honaino arazorik ez, baina zehatz-mehatz, zein Frantziskok eman zion izena *Pantxo* etxeari? Eta hementxe dago *auziaren iltzea*.

Izan ere, *Pantxo* etxeko lau belaunalditan jarraian familiaburuak Frantzisko Urzainki izena izan zuen. Gaur egungo belaunalditik abiatuz gero, Urzainki Asin anai-arrebak, alegia, Frantzisko Urzainki izena zuen lehenengo arbasoa bere herenaitona izango litzateke, Juan Frantzisko Urzainki Sanz. Hura Pedro Frantzisko Urzainki Mainzen semea zen, Josef Frantzisko Urzainki Mendigatxaren biloba eta Juan Frantzisko Urzainki Mainzen birbiloba. Hortaz, zaila dirudi 1757 eta 1892 urteen artean, etxearen jabe izan zirenen lau Frantziskoen artean etxeari *Pantxo* izena zeinek jarri zion jakitea.

Nolanahi ere, *Pantxo* etxeaz gain, garai batean *Andixko* izenarekin ezagutzen zen.

Pantxo etxea, Bidankozeko xurginen inguruko legendaren baten jatorria



Pantxo etxea

Ziurrenik, nola eta norengatik sortu zen ez dakigun izengoiti bat izanen da, eta bere esanahiak ere zalantzaren bat sorrarazten digu. *Andixkoren* esanahia '*handitxo*' da, hortaz zenbaitetan izengoitiek duten kutsu barregarria kontuan hartuz, baliteke norbait handiaz aritzea baino guztiz kontrakoa adierazi zezakeela. Dena dela, jakin badakigu, *Andixko* da egungo *Pantxo* etxea antzina ematen zioten izena.

Pantxo etxean aurkitzen dugun beste bitxikeria bere familia-transmisioa da. Gure herrian, gure ibarrean, beti uste izan dugu etxeak oinordetzan jasotzen zituena familia bateko semerik zaharrena zela. Baina gaian pixka bat sakontzen duen edonor berehala jabetuko da araua izatetik nahiko urrun dagoen ustea dela. Bada, Bidankozen arau hura bete duen etxeetako bat *Pantxo* etxea da, zortzi belaunaldi jarraituetan gutxienez transmisio hori gizonezkoek egin baitzuten. Hori dela eta, 1701 urtetik gutxienez Urzainki abizena mantendu duela esaten ari gara.

Hiru mendetan zehar, transmisioa arrisku handian egon zen (aita baten heriotza goiztiarraren ondorioz, bigarren ezkontzen ondorioz jaiotzen ziren semeengatik, horiek ere oinordetzarengatik lehia zitezkeen eta; seme gutxi izateagatik eta horietatik erdiak edo hil egiten ziren, etab.), baina patuaren indarrez edo, bere bidea jarraitu ahal izan zuen.

Tira, *Pantxo* etxea, *Andixko* etxea, Bidankozeko beste etxe bat bere istorioekin.

Pantxo etxea eta xurginak

Kondairak dioenez, *Pantxo* etxetik hurbil zebilen oilo bati parrandan zeuden gazte batzuek lepoa bihurritu zioten. Eta hurrengo egunean etxeko amona lepoko minarekin omen zebilen.

Istorio honek Bidankozeko nagusiek esaten dutenarekin bat egiten du, alegia, gure herrira '*xurginak Burgitik igo zirela*' eta istorio honetako ustezko xurgina Teresa Jesus Perez Artika da, Burgikoa eta *Pantxo* etxeko Juan Frantzisko Urzainki Sanzekin alargunarekin ezkondua, bere aurreko emaztea 1855eko kolera izurritearen ondorioz hil baitzen.

Bikote honek ez zuen ondorengorik izan, baina Teresa, *Pantxa* izenez ezaguna, (*Pantxo*, Frantziskoren emaztea zelako), urte asko bizi izan zen, bere izaeraren arrastoak utziz, eta horrek ziurrenik Teresaren izen ona zikindu nahi izan zuen etsairen bat sorrarazi zuen, zeinek Teresaren aurkako istorioak asmatu zituen.

Halabeharrez (edota baliteke hain ustekabekoa ez izatea), *Pantxo* etxea erronkariar tximinietan xurginak uxatzeko jartzen zen harrizko gurutzea mantendu duen Bidankozeko azken etxea izan da. Ohitura horren adibidea berreraikitako *Montxonena* etxean ikus daiteke.

Bidankozeko abizenak

Oraingo honetan aldizkariak herrian diren eta izan diren abizenen buruzko atal sortu berria dakarkizue. Erabaki horren atzean hiru arrazoi izan dira: batetik, '8 apellidos vascos' filmaren arrakastak genealogiarekiko piztu duen jakinmina -horren aitzakiaz jende ospetsuaren abizenen buruzko telebista saio bat egin da, oso harrera ona izaten ari dena-; bestetik, gaiarekiko nire zaletasuna; eta azkenik, nirekin Miquel Martik (*Bilizar*) partekatu duen Pasquel familiaren historiaren inguruan egindako ikerlan ikaragarria jaso izana.

Zenbaki bakoitzean Bidankozeko abizen baten historia aztertzen saiatuko gara atal berrian: noiz, noren bitartez eta nondik iritsi zen, bere jatorrizko esanahia, zein etxetan izan den eta etxeren baten izena izan ote den, abizen hori zuen norbaiten egintza aipagarririk ba ote dagoen...

Batez ere, herriko abizenen ohikoenak aztertuko ditugu; alabaina, ezohikoagoak direnei edo egun ez direnei ere lekua eginen diegu. Izan ere, zeintzuk ote dira Bidankozeko abizenak? Ba al da esaterik abizen bat jatorrizkoa edo eratorrizkoa den? Ba ez eta bai; erantzuna ezezkoa ala baiezkoa izan

daiteke, hori nola aztertu; arazoaren muina abizenen familia transmisioa baita.

Uste izaten da abizenak *betidanik* oinordetu izan direla, baina hori ez da horrela. Ikusi besterik ez dago zer geratu zen lruñeko lehenbiziko errege-erreginek: Iñigo Aristaren (Eneko Aritza) semea Gartzia Iñigez zen, abizenak '*Iñigoren seme*' esan nahi duena, eta azken horren semea Fortun Gartzes izan zen, '*Gartziaren seme*', alegia.

Beraz, garai haietan abizena ez zen oinordetzen, eta gainera ez zuen zertan egin aipamenik familiari, baizik eta izenaren osagarria eta pertsona identifikatzeko lagungarria izaten zen. Lehen emandako adibideaz gain, abizena pertsonaren jaioterria ere izan zitekeen (Urzainki, Garde, Esparz...), edo bere nolakotasun bat (ezker, gorri, beltza...), lanbidea (zamargilea, txerrail, unaia) etab.

Abizenak oinordetzen hasi omen ziren XV. mendean, baina kasu gehienetan -eta zorte asko izanik-, jatorria ezagutzeko eta genealogia egiteko XVI. mendeko bigarren erdialdera arte iritsi gaitzke, askoz



jota; izan ere, Trentoko Kontzilioaz geroztik (1545-1563) hasi ziren aldiro-aldiro sakramentu-liburuak idazten, eta bataioak, sendotzak, ezkontzak eta heriotzak jasotzen.

Bidankozen ziurrenik 1575 aldera hasiko ziren horiek, Erronkaribarko gainerako herrietan bezala, nahiz eta soilik 1701-1702tik aurrerakoak eutsi gaur egunera arte. Lehenengo 125 urte horiei dagozkienak desagertu ziren, zergatik ez dakidala.

Herriko abizen eta etxe izenen kontuak oso gustuko ditugunez, esperodut atal hau zuen interesekoa izatea eta zuek gogobetetzea.

Hasteko, eta Miqueli esker, Pasquel abizena aztertuko dugu hurrengo zenbakian.

Diario de Navarra
1966/06/14

Telebistako 50 urte Bidankozen

La noticia más interesante en estos ocho meses de ausencia ha sido la instalación de televisión en el Valle. Su imagen es nítida, perfecta. Pero este servicio no completa todas las villas, ya que las llamadas «Alforjas del Valle», Garde y Vidangoz, la primera carece en absoluto y la segunda lo logra de forma deficiente. Yo pertenezco a la primera, así cuando jueguen nuestros paisanos Zoco y Glaría, tendremos que verlos fuera de la localidad. Un ruego a «quien corresponda» para que no sigamos privados de tan importante servicio.

Badirudi betidanik egon dela gurekin, eta ez da horrela. Izan ere, aurten betetzen da mende erdi bat *kutxa ergela* gure herrira eta Erronkaribarrera iritsi zenetik.

1966ko udaberrian Bardeetatik itzuli berria zen Gardeko artzain batek aurkitutako berritasun aipagarriena zen. Albiste ona, bai, baina huts batekin, irudia ez zen ongi iristen ez Gardera ez Bidankozera (beno, hau nahiko arrunta da). Ibarreko anekakizatearen kontuak...

